



# Erakusketa Bizitza erdigunean

EKONOMIA SOLIDARIOARI BURUZKO BEGIRADA FEMINISTA

## ERAKUSKETAREN DOSSIERRA

- MOTIBAZIO ETA TESTUINGURUA.
- ERAKUSKETAREN ESPAZIOAK.
- NOLA ERAMAN ERAKUSKETA ZURE ESPAZIORA: MUNTATZEKO ETA IBILBIDEA EGITEKO AUKERAK.

### MOTIBAZIOA ETA TESTUINGURUA

Feminismoak hamarkadak daramatza salatzen gobernatzen gaituen kapitalismo heteropatriarkal, arrazista eta kolonialak ez duela bizitza bere erdigunean jartzen. Are gehiago, bizitzaren kontra eraikitzen da askotan. Irabazteko, uniformizatzeko, gorputzak kontrolatzeko eta pentsamendua kolonizatzekeo grinak ondorio negargarriak eragiten dizkio gure bizitzaren eta planeta-  
ren iraunkortasunari.

Hainbat menderatze-sistema osatzen duten elementu guztiak salatzekeo eta desmuntatzeko beharraren parte da erakusketa hau. Eta hori irauliko duten alternatibak proposatzeko nahiari ere erantzuten dio. Erakusketa honen helburua alternatiba sozioekonomikoak indartzen eta nahitaez feminista den ekonomia solidarioa garatzen lagunduko duten hizkuntza eta narratiba komunak eraikitzen joatea da.

Ekonomia solidarioa ikuspegi eta praktika bat da, ekonomia bizitzaren iraunkortasunaren eta guztion ongia-  
ren zerbitzura dagoen tresna gisa aldarrikatzen duena. Gizarte-mugimendu eraldatzaile gisa, egungo sistema zalantzan jartzen duten eta bidezkoagoak, solidarioagoaketa iraunkorreragoak egiteko beste modu batzuk

eraikitzen laguntzen duten hainbat korrante kritiko batzuekin bat egitea planteatzen du. Hor artikulatu dira ekonomia solidarioa eta ekonomia feminista, pertsonak eta bizitza erdigunean jarriko dituzten eredu sozial, ekonomiko eta politikoetarantz aurrera egiteko.

Erakusketa hau REAS Euskadik 2020an Lankidetzaren Euskal Agentziaren eta Bizkaiko Foru Aldundia-  
ren laguntzarekin argitaratutako **“Ekonomia solidarioo baterako hiztegi feministatik”** sortu da. Eta Bizkaiko Foru Aldundiko Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren finantzaketari esker da posible.



(DESCARGA DICCIONARIO)

# GUREKIN ZATOZ ERAKUSKETA HONEN IBILBIDEA EGITERA?

## Gure abiapuntu tristetik paradigma berri baterantz

Gure erakusketaren hasieran, proposatzen dugun **eraldaketa sozial, ekonomi-ko eta kulturalaren kontakizuna** sortzen duten 3 irudi multzo ikus ditzakegu.

### 1. PANELA

## Lehenik eta behin: gure abiapuntu tristea irudikatzen duen paisaia.

Imajinatu errealitatea begirada androzentriko eta binariotik elikatzen den motorra duen fabrika gisa.. Produktiorako gune horretan, bat egiten dute kapitalismoak eta heteropatriarkatuak, eta elkar osatzen dute. Heteropatriarkatuaren sistema moralak kapitalismoaren jasangarritasun-irudipena ahalbidetzen du, hazkunde mugagabearen eta autonomoaren ilusioa. Aldi berean, ezkutatu egiten du eremu erreproduktiboari esker eusten diola kapitalismoak produkzioari, hau da, icebergaren alde ezkutuari esker, zaintza eta baloratzen, ordaintzen eta kontuan hartzen ez den guztia barne hartzen dituen alderdi ikusezinari esker. FFabrika androzentriko, heteropatriarkal, arrazista, kolonial eta kapitalista horrek inguruan aurkitzen duen paisaia guztia kutsatzen du, lanaren banaketa sexuala eta sortzen dituen desberdintasun eta indarkeria guztiak naturalizatuz.

**Zer gertatuko litzateke icebergaren alde ezkutuz arduratzen diren pertsonak desagertuko balira? Nola iraungo luke gure ekonomiak?**



## 2. PANELA

# Bigarrenik: zuhaitz bat balitz bezala, gure proposamenak paradigma berri bat planteatzen du, bizitzaren iraunkortasunarena.

Zuhaitz horren enborrak bi ardatz ditu, bi zutabe —alderdi soziala eta ekologikoa—, eta ekonomia-proposamen eraldatzaile eta bizitzaz beteetan sustraituta daude.

Bizitzaren zerbitzura dauden ekonomiak eraikitzeak gure erakundeen, praktiken eta egituren erdigunean bizitza jartzea ere esan nahi du. Lurra garbitu, aireztatu, ongarritu eta antolakunde bizigarrietara joateko lana, denentzat ekologikoagoak, solidarioagoak eta bidezkoagoak diren forma horiek erdigunean jar ditzaten. Horretarako ditugun tresnen artean daude erakunde-eraldaketa feminista eta agentzia-gaitasuna.

**Eta zer egin dezakezu zuk gaurtik aurrera bizitza-paisaia horri ekarpena egiteko? Alternatiben zuhaitz hau indartzeko?**




### 3. PANELA

## Hirugarrenik, bidaia honetarako beharko ditugun baliabide eraldatzaileen irudi gorpuztua.

Bitziza jasangarriak eraikitzeko bidean aurrera egiteko, aldaketa-prozesu indibidual eta kolektiboa behar dugu, bolkanikoa, gure sinesmenak etengabe deseraikiko dituena.

Begirada binario eta androzentrikoak errealitate heteropatriarkala eraiki duen moduan, interseksionalitatean oinarritutako begirada berriak beste ikuspegi bat du: elkarri lotu-riko zapalkuntza- eta pribilegio-geruza asko daudela hartzen du kontuan, alternatibak aztertu eta planteatzerakoan.



**Pentsatu orain zuegun eta zure ingurukoengan (familiar, lagunengan, bikotekidearengan...); zure laneko, ikasteko eremuetan. Zer gauza uste duzu geratzen direla deseraikitzeke? Eta zuri, arlo pertsonalean, zer geratzen zaizu deseraikitzeke?**

## Ekarpenen espazioa: Taldean elkarrekin sortzen

Erakusketa bisitatzeko duten pertsonen iritziak jasotzeko espazio bat definitu dugu. Horretarako, hiztegi zuri bat eskaintzen dugu, nahi dutenek beren ekarpenak utz ditzaten eta, horrela, hitz-sare honen bidez gure gogoetak zabaltzen eta eraldatzen lagun dezaten.

*Gustatuko litzaiguke gure hiztegia eraldatzen jarraitzea eta bizitza erdigunean jartzen lagunduko diguten hizkuntza eta narratiba komun bati ahotsa ematea.*



# ERAKUSKETA HAU ZURE ESPAZIORA ERAMAN NAHI DUZU?

## 1. Aukeratu nahiko zenukeen esperientzia-modalitatea.

Muntatzeko aukerak atalean ikus ditzakezu **3 proposamenak**.

## 2. Jarri gurekin harremanetan esteka honetan aurkituko duzun formularioa betez:

Formulario honen bidez zure interesak gehiago ezagutu ahal izango ditugu, neurrira egindako esperientzia bat eskaintzeko.

Gainera, erakusketaren kostuen aurrekontua bidali ahal izango dizugu. Gogoratu erakusketaren materialen lagapena doakoa dela, baina erakusketak muntaia- eta garraio-kostuak dituela, eta, hautatuz gero, tailerra errazteko kostuak.

## 3. Coordinamos agendas y ultimamos detalles.

### KONTAKTUA:

Lili Aldai: [lilialdai@gmail.com](mailto:lilialdai@gmail.com)

Zaloe Pérez: [zperez@reaseuskadi.eus](mailto:zperez@reaseuskadi.eus)

## OPCIONES DE MONTAJE

### MUNTATZEKO AUKERAK

NOLA ESPLORATU IKUS-ENTZUNEZKO ERAKUSKETA HAU?

## 3 ESPERIENTZIA MOTAK

### 1. Ikus-entzunezko ibilbide **gidatua** tailerrarekin.

**Iraupena: 2 ordu**

**Parte-hartzaileak: 15-20 pertsona**

#### Esperientzia honetan sartzen dira:

- Ikusizko ibilbide gidatua
- Sakontzeko eta hausnartzeko entzumen-hiztegia
- Hausnartzeko eta kontzeptuak integratzeko tailerra

#### Sakondu nahi duten taldeentzat, modu ludiko eta parte-hartzailean.

Ikusi-entzunezko ibilbideari, proposamen honekin, erakusketaren hitz gakoei buruz hausnartzeko espazio bat gehitzen zaio, gure ezagutza propioei balioa emanez eta berriekin integratuz.

Bisita gidatu bat, bizitzaren iraunkortasunaren ideia eta hori lortzeko behar ditugun aldaketa pertsonal eta kolektiboak elkarrekin aztertzeko.

#### KOSTUA:

- Erakusketa-materiala lagatzea: **KOSTURIK GABE**
- Erakusketa-materiala garratzea eta muntatzea: **KONTSULTATU**
- Tailerra dinamizatzea: **400 €**
- Tailerreko dinamizatzailearen garraio-gastuak eta dietak (Bizkaitik kanpo egonez gero): **100 €**

ERAKUSTEKA  
NAHI DUT!



## 2. Ikusizko ibilbidea:

Iraupena: gutxienez 30 minutu

Parte-hartzaile kopurua:

30 gutxi gorabehera

Erakusketa hiru geltoki nagusiren bidez egin daiteke. Hiru espazio horietako irudiek istorio bat kontatzen dute, testuaren eta ilustrazioen bidez. Horietan, Bizitzaren Iraunkortasuna, egungo oztopoak eta hori lortzeko baliabideak eta bideak erakusten dituzten ideia eta hitz gakoak ikus ditzakegu.

### **KOSTUA:**

- Erakusketa-materiala lagatzea: **KOSTURIK GABE**
- Erakusketa-materiala garraitzea eta muntatzea:

**KONTSULTATU**

## 3. Ikus-entzunezko ibilbidea

Iraupena: gutxienez 30 minutu

Parte-hartzaile kopurua:

30 gutxi gorabehera

Ikusmen-ibilbideari entzunezko hiztegi bat gehitzen zaio. Narrazio grafikoan sakontzeko eta horri buruz hausnartzeko, QR leihoak ditugu, eta, hainbat ahotsen bidez, definizio zehatzekin lagunduko digute gako-hitz horiek, narrazio-hariaren bidez bata bestearekin erlazionatuz.

Horiek integratzen eta horiek sortzen dituzten sinesmen eta ideien sisteman sakontzen joatea errazagoa izan dadin, hiztegi honek hausnarketarako galderak ere proposatzen ditu.

### **KOSTUA:**

- Erakusketa-materiala lagatzea: **KOSTURIK GABE**
- Erakusketa-materiala garraitzea eta muntatzea:

**KONTSULTATU**



9

ERAKUNDE BIZIGARRIAK  
GENERO-EKITATEAREN ALDEKO  
ERAKUNDE-ALDAKETAKO  
PROZESUAK  
AGENTZIA

ORGANIZACIONES HABITABLES  
CAMBIO PRO-EQUIDAD DE GÉNERO  
AGENCIA

*Hauek dira gure proposamenak, baina zuen iradokizunei irekita gaude.. Beste modalitate batean interesa baduzu, gustura entzungo ditugu zure ideiak.*

# NORTZUK GARA?

**REAS Euskadi -Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sarea- eta Aldaitarrak -Gizarte Komunikazio eta Diseinu kontzientea-** gara ikus-entzunezko proposamen honi forma eman diogunak, sistema honen egitura bidegabe eta desorekatuan aldaketak salatu eta proposatuko dituzten hausnarketarako eta kontzientzia feministarako guneak sortzeko benetako nahitik abiatuta.

Gure bideak aspaldidanik elkartu dira, eta gure ikuspegiak elkar osatuz eta indartuz joan dira, herritarrak sentibilizatzeko materialak eta tailerrak eginez.

Guk, Las Aldai, alkimista grafikotzat hartzen dugu geure burua, eta ulertzen dugu komunikazioak espiritu eraldatzailea, didaktikoa eta garapen sozial eta pertsonalarekin konprometitua izan behar duela. Gure helburua ereitearen bidez komunikatzea da. Ikusizko metafora gisa haziak sortzea, hausnarketaren eta emozioaren espazioa elikatzen dutenak, eta hori oso lur aproposa da mezuaz blaitzeko.. Eta REAS Euskaditik mezua argia, propositiboa eta premiazkoa da: ekonomia solidarioa indartzea eta ikusaraztea, esparru ekonomikoan alternatiba eraldatzaileak sortzen dituzten esperientzia eta tresnen bidez.

REAS Euskadi eta Las Aldai, mundu mailan bizi dugun gatazka handia erakusten duen ikus-entzunezko bidaia hau igarotzera gonbidatzen zaituztegu: Kapitala/Bizitza gatazka eta gatazka hori gainditi ahal izateko alternatibak.

---

## Kredituak

REAS Euskadik, Lankidetzarako eta elkartasunerako Euskal Agentzia eta Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzarekin 2020an argitaratutako Ekonomia solidario baterako hiztegi feministatik sortu da erakusketa hau. Argitalpen honen ekoSolFem taldearen ekarpen baliotsuak jaso ditu - REAS Euskadiren ekonomia feministako taldea da ekoSolFem-

**Komisariotza eta edukiak:** Lili Aldai y Zaloa Pérez

**Irudiak:** Lili Aldai

**Diseniua:** Ruth Aldai

**Itzulpena:** Traducciones Belaxe

**Narratzailearen ahotsa:** Lili Aldai (castellano), Estibaliz Alonso (euskera)

**Definizioen ahotsa:** Zaloa Pérez (castellano), Blanca Boix (euskera)

**Audioen grabazio eta edizioa:** David Fernández

**Musika:** Artlist webgunetik

1. Panela / Solar Flare/ Adi Glodstein
2. Panela /Remembering/ Master Minded
3. Panela /I feel You/ Mee

